

## PRENTSA DOSSIERRA

# PLAZANDREOK



## BEHAR-BEHARREZKOAK IMPRESINDIBLES



<http://plazandreok.com>

Síguenos en   Jarrai gaitzazu

Komunikazio arduraduna: *June Fernández* (665 832 368)

## Plazandreok-ek emakumeak politika guztietan kontutan hartzea eta pertsonen zaintza lehenestea defendatuko du

- *Elkarte feministak udal eta foru hauteskondeetarako bere hautagaiak aurkeztu ditu gaur Donostian*
- *Aurtengo leloa: "Imprescindibles. Behar-beharrezkoak", feminismoa egiatako berdintasuna lortzeko ezinbestekoa da eta*

Plazandreok Emakumeen Plataforma Politikoak gaur maiatzak 5, goizeko 11.30etan Alderdi Eder lorategietan, udal eta foru (Bidasoa-Oiartzun eta Donostialdean) hauteskondeetarako bere hautagaiak aurkeztu egin ditu: **Juana Aranguren eta Axun Urbiet**a, hurrenez hurren. Elkarte feminista hau hauteskondeetan parte hartzen duen bosgarren aldia da; dagoeneko elkarte politiko tradizionalen alternatiba bezala sendotuz.

Kanpainia honetarako aukeratutako leloa "**Imprescindibles. Behar-beharrezkoak**": alegia, nahiz eta gizartearen parte batek uste berdintasuna lortuta dagoela, feminismoa **emakumeek** bizitzako esparru guztietan pairatzen dituzten **diskriminazio guztiak ezabatzeko ezinbestekoa** dela defendatzen du Plazandreok-ek.

Halaber, Juana Aranguren alkate hautagaiak azpimarratu egin du "**parekotasuna ez dela bakarrik kargu politikoen erdia emakumeak izatea** (esan beharra dago hori ere ez dela lortu), baizik eta politika egiterako orduan, biztanleriaren erdiaren interes eta beharrak ere kontutan hartzea". Zentzu horretan, emakumei lotutako gaiak lehentasun politikoa ez izatea gaitzetsi du, eta adibide gisa jarri du Emakumeen Etxeari ez zaiola ematen "inondik inora ere" Donostiako beste antzeko ekimenei beste garrantzia eta baliabide.

Hautagaiak hauteskunde programaren ildo nagusiak aurkeztu dituzte, guztien oinarrian "**bizitza politikaren erdigunean kokatzea**" dela azalduz. **Zaintzari lotutako gaiek lehen mailako garrantzia** har dezatela nahi du Plazandreok-ek. Hala, beste elkarteek bezalako proiektu faraoikoak aurkeztu ordez, pertsona guztien arteko berdintasuna eta bizitza kalitatea bermatzea helburu duten neurrien alde egin dute apustu.

Axun Urbietak berdintasunaren arloan hurrerengoa funtsezko aldarrikapenak azpimarratu ditu:

- **Indarkeria sexistarekin** bukatzeko konpromesu politiko handiagoa
- **Berdintasun legeekin** betetzea
- **Etxeko lanetan eta zaintzan gizonen inplikazioa**. Amatasun eta aitatasun baimen berdina eta transferiezina.
- Emakumeen **bazterkeria eta prekarietate** ekonomiko eta sozialarekin bukatzea
- **Villa Soroa Emakumeen Etxearen egoitza** behin betikoa bezala. Aurrekontu eta langile egokiekin, eragin soziopolitiko tresnan bihur dadin.

Programak emakumeek esparru guztietan pairatzen dituzten **diskriminazioekin bukatzeko neurri zehatzak** proposatzen ditu: **enpleguan, etxebizitzan, osasunan edota kirolan**, besteak beste. Horrez gain, hainbat arlotan **genero ikuspegia** txertatzeko proposamenak ere plazaratzen ditu: hirigintzan, segurtasunean, aisialdi eta kulturaren, etab.

Plazandreok-ek **laikotasunaren** aldeko apustua egiten du, **askatasun eta aniztasun sexual eta afektiboaren** aldekoa, **arrazismoaren kontrako**, **ingurugiroaren defentsa**, eta **euskeraren** sustapenaren alde ere agertzen da. Guzti horrekin gizarte bidezko, berdinezko, parte-hartzaile eta bakezale bat eraikitzea da Plazandreok-en helburua.

Aurkezpenean, plataformak Udaletxeko eskaileretan **puxika more** handiak jarri dituzte, emakumeen eskubideen aldeko borrokaren ikur gisa. Euren kanpainia <http://plazandreok.com> bloga, **Facebook eta Twitter**-en bidez jarraitu ahal izango da aurten.

## HAUTESKUNDE-KANPAINAKO BEHIN-BEHINEKO EGUTEGIA

	<b>EGUARDIAN</b>	<b>ARRATSALDEAN</b>
<b>Maiatzak 5 Osteguna</b>	<b><u>Hautagaien aurkezpena</u></b> (Alderdi Eder)	<b>Kartelak itsastea</b> (gaueko 12etan Alderdi Eder-en)*
<b>Maiatzak 6 Ostirala</b>	<b>Hautagaien bazkaria</b>	<b>Propaganda banatzea</b> (Alde zaharrean)
<b>Maiatzak 7 Larunbata</b>	<b>San Martin, Bretxa eta Gros merkatuetan propaganda banatzea</b>	
<b>Maiatzak 8 Igandea</b>	<b>Intxaurrondon propaganda banatzea</b>	<b>Gros-en propaganda banatzea</b>
<b>Maiatzak 9 Astelehena</b>		
<b>Maiatzak 10 Asteartea</b>		
<b>Maiatzak 11 Asteazkena</b>		
<b>Maiatzak 12 Osteguna</b>	“¿Qué pasa con la casa?” mahai inguruan parte hartzea	
<b>Maiatzak 13 Ostirala</b>		<b><u>EKITALDI ZENTRALA</u></b> (Boulevard-ean)
<b>Maiatzak 14 Larunbata</b>	<b>Hausnarketa eguna</b>	<b>Hausnarketa eguna</b>
<b>Maiatzak 15 Igandea</b>	<b><u>Hauteskundeak</u></b>	<b><u>Hauteskundeak</u></b>

### **HAUTAGAIK:**

#### **Juana Aranguren: Donostiako alkatetzarako hautagaia**

Abokatu eta etxeko andrea, emakumeen eskubideen defentsan espezializatua. 30 urte baino gehiago daramatza Mugimendu Feministan parte hartzen. Plazandreok-en fundatzailea. Erabaki organoetan feministen presentzia egotea ezinbestekoa iruditzen zaio, eurak bakarrik direlako emakumeen aldeko eta diskriminazioaren kontrako politikak benetan sustatzeko gai, behar horretan sinisten dutelako.

#### **Axun Urbieta: Batzar Nagusietarako hautagaia**

Administratibo eta etxeko andrea. 70ko hamarkadaren bukaeratik emakumeen asanbladatan eta

lesbianen taldeetan parte hartu du. Politika feminista egitea, emakumeok bizitza hobea lortzeko dugun bide bakarra dela pentsatzen du. Eskatzeko asko daukagu, aldarrikatzeko asko daukagu, goxatzeko asko daukagu. Horregatik dago Plazandreak en. Kirolaria da. Lilatoia.n parte hartzen du. Kontxan hartzen du bainua egunero. Esaldi xebreak gustatzen zaizkio, horien artean, bere gustukoena hurrengoa: "Kontuz eraikitzen duzun egunerokoarekin, amesten duzun etorkizunaren antza izan dezake eta."

## HAUTESKUNDE PROGRAMAREN LABURPENA

### **ZERGATIK PLAZANDREOK?**

Zergatik aurkezten gara Donostiako Udal eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako haueskundetara?

**A) Kanpaia honetan gure leloak esaten duen bezala gara: "IMPRESINDIBLES- BEHAR- BEHARREZKOAK"**

**B) Feminismoa behar beharrezkoa eta ezinbestekoa izaten jarraitzen duelako**

*Parekotasuna ez delako bakarrik kargu politikoen erdia emakumeak izatea (eta esan beharra dago hori ere ez dela lortu), baizik eta politika egiterako orduan, biztanleriaren erdiaren interes eta beharrak ere kontutan hartzea*

**C) Bizi garen egoera sozial larri hau ez zaigulako gustatzen, eta alda daitekela eta alda dezakegula pentsatzen dugulako. Gure helburua BIZITZA POLITIKAREN ERDIGUNEAN JARTZEA DA, pertsonen zaintzari lotutako gaiak lehen mailako garrantzia har dezatela.**

**D) Emakumeak ez gaudelako ordezkaturik, eta horren ondorioz gure arazo larrienak ez dira agertzen betiko alderdi politikoen agenda politikoetan.**

**E) Edozein sistema demokratikok gizartean elkarrekin bizi diren pertsona guztien ahotsa jaso beharko luke. Biztanlegoaren %53,1 emakumeak gara eta gure bizitzan eragina duten erabakiak hartzen diren erakundeetan ordezkapena izateko eskubidea dugu.**

**G) Emakumeei lotutako gaiak lehentasun politikoa ez izatea gaitzetsi du, eta adibide gisa jarri du Emakumeen Etxeari ez zaiola ematen "inondik inora ere" Donostiako beste antzeko ekimenei beste garrantzia eta baliabide.**

### LANA:

Emakumeok %30 gutxiago irabazten dugu. Emakumeok langabeziaren kopurua bikoizten dugu. Emakumeok lan merkataritzan bazterturik gaude, okerrago ordaintzen diren laneetan. Gero eta atzeritako emakume gehiagok lan egiten dute edozein baldintzetan, paperik gabeko emakumeak direlako. Emakume hauek ez dute inongo eskubiderik. Lan orduko jardunaldiaren bikoitza ez da desagertu. Pertsonen zainketak gero eta arazo larriagoak ekartzen dizkigu.

### GENERO INDARKERIA:

Tratu txar fisiko eta psikikoek ez dute behera egiten. Bortxaketak hor daude. Erailketak ez dira bukatzen. Emakumeen kontrako indarkeria honek bakarrik hauteskunde klabeen kezkatzen du.

Politikariek ez dute zergaitien kontra egiten, ezta prebentzio politikak diseinatzen Bulego bakarraren sorrerak, berdintasun organoetatik kanpo, politika bereziki txarra da. Hala ere, guk orain eta beti indarkeriari ezetz esaten diogu: ez publikoa ezta pribatua. Eta batez ere indarkeria sortzen duten sorburuen kontra egitearen beharra azpimarratzen dugu.

#### *ORDEZKARITZA POLITIKOA:*

Emakumeak ez gaude politikan ordezkatuak. Demokrazia parte hartzaile bat, giza-talde guztien parte hartzailea sustatzen duena, ezinbestekoa da pairatzen dugun demokrazia defizita konpontzeko.

### **ZER PROPOSATZEN DUGU?**

#### **BERDINTASUNA.**

Berdintasun eskubideak ez du oraindik ere egiazko berdintasuna ekarri (materiala)

#### **EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO SAIL ETA ZINEGOTZIGOAK, EMAKUMEEN ESKUBIDEEN DEFENTSAN NABARMENDU DIREN EMAKUMEEK ZUZENDUAK**

Organismo hauek ez dute arlo batetara atxikituta egon behar izan, hala arlo guztietan zeharka esku har dezaten.

#### **EMAKUMEEN KONTSEILUAK**

Donostian Emakume Kontseilu bat daukagu, bai, baina ez da hala gertatzen Gipuzkoako beste herrialde askotan. Kontseilu hauek ezinbestekoak dira emakumek eurengan eragina daukaten politikak diseinatzen dituzten erakundeekin harremana izan dezaten.

#### **EMAKUMEEN ARTEKO HITZARMENAK**

Idea desberdinak dituzten emakumeen arteko borondate politikoa beharrezkoa da. Berdintasun politiken inguruan hitzarmenak bultzatzeko prest dauden emakumeak. Helburu konkretuak lortzeko gutxieneko batzuetan adostasuna lortzea beharrezkoa da.

#### **AUKERA BERDINTASUNERAKO AGENTEAK**

Berdintasun planak eta ekintza positibo politikak txertatzeko beharrezkoak dira.

### **ZER DAUKAGU?**

Ez da udal eta foru hauteskundeetara aurkezten garen lehenengo aldia eta ez da helburu eta estrategia hauek defendatzen ditugun lehenengo aldia ere. Ondo egiten ari dena onartzen dugu, esaterako Emakumeen Etxearen sorrera. Baina oraindik ere ez gara erakundeentzat lehentasun bat, eta hori salatu beharra dago. Udalaren ekintza positiboen planek bultzakada handi bat behar dute, eta oraingoz alkateak ez du borondate hori erakutsi izan. Foru esparruan gauzak ez daude hobeto. Emakumeen Foru Kontseilua eskatzen dihardugu, eta parte hartzeko aukera hori ukatzen zaigu.